



Arg. 8.6. Aintzinan hautsitako lekukoa eta ondoren berriztatua.

## IX. Ondorioak

## X. PEÑALVER

Orain arte deskribatzen joan garen multzo megalitikoaren indusketa, ondo definituriko sei monumentuz eta zalantzazko interpretazioa duten beste biz osatua, hasiera batean plangintzatuta genuen bezala eraman da aurrera, hau da, egitura eta hauen tartean zeuden zonaldeak industuz.

Euskal Herriko harrespilei buruzko ikerketaren barnean multzo honek duen garrantziaz oharturik, beharrezkotzat jo genituen lan hauei buruz kontsiderazio bakar batzuk egitera goaz.

Protohistoriari dagokion K.a. I. milurtean, garai honetakoa dugu multzo megalitikoa, Euskal Herriko isurialde Atlantikoko biztanleen bizimoduari buruz informazio gutxi dugu. Esparru murrudun bakar batmen aztarnak, gaur egun indusgai direnak, eta haitzuloetako maila batzuk dira, soilki, biztanleen ohiturei buruzko iturri bakarrak.

Baina, ehorzketa-munduak gaur arte zonalde oso mugatura hedatzen denak, orain ikergai den monumentuen motakoak kontserbatuak ugari direnez, in-

formazio gehiena ematen digu, nahiz hau baldintza ezberdinak dituelako ez izan oso ugaria.

Mulisko Gaineko ehorzketa multzoen kokapenak pentsa arazten du hauen eraikitzaileek aziendentzako larre bila maiz ibiltzen zirela inguru hauetan eta abelazkuntza zela iharduera nagusia. Hau, toki hauek duten altitudeagatik iharduera hemen urte sasoikoa izatera behartuko zuen. (Gipuzkoan harrespil-multzoen indize nagusia 600 eta 700 m. tartean, aurkitzen da, Nafarroan berriz altitude hau 1.100 eta 1.200 m. tartean kokatzen da, 500 eta 1.200 m. tartean dauden 69 multzo katalogatuetatik 65 azken probintzia honetan aurkitzen dira. Mulisko Gaineko multzoa, berriz, Gipuzkoako indizearen behetik aurkitzen da, 415 m.tara.

Monumentu hauetan, kasu honetan bezala, multzoaren eraiketarako mendi-hegal bateko zapalda aukeratzea nahiko sarritan ematen da (Gipuzkoan, 22 multzoetatik 5etan), baina muino eta lepoak dira toki aukeratuenak.

Soilki ehorzketa-egiturak ezagutzeak, aztarna bakanak eskaintzen dituztelako, jende hauen ekonomiaz ondorio gehiago lortzea zaila egiten da, baina, lehen esan dugun bezala, hauek kokatzen diren tokiak abelazkuntzan oinarritzen den ekonomia batean pentsa arazten du. Honek, nekazaritza eduki zezakeen osagai bezala. monumentu bakar batzutan (Oianleku I. eta Mulisko Gaina) igitai-hortzak izan daitezkeen aurkikuntzek adieraz dezaketean bezala.

Hala ere, kronologia arloan eta egiturei dagokienez, lor daiteke informazio gehiago aztarnategi-mota honetan datazio batzuk eta egitura-mota ezberdinak ezagutzen ditugunez.

Mulisko-Gaineko 2.630 ± 90 B.P. datazioak aurrez genituen usteak baieztatu ditu, bestalde Ipar Euskadin burutu diren beste ikerketa-lan batzuetan zehar lortu direnetakoekin bat etorriaz.

Egiturei dagokienez, Mulisko Gainean mota ezberdinetakoak dira, nahiz harrespilak nagusi izan, eta elkarren antzeko ezaugarriak eduki. Zista bere tumuluarekin, ikatz-aztarnak dituen harrespilak bezala, garai berdinekotzat har daitezke, nahiz indusketan zehar aurkitutako laginak C14ren bidez datatzeko eskasegiak izan.

Monumentu hauen helburua ehorzketa da, nahiz, kasu batzutan, dirudienez, errausketa industutako monumentuen barnean ez egin, bertan geldituko bait ziren ekintza honen aztarnak.

Badirudi hilotzak gertuko toki batean erreko zirela eta gero, aztertzen ari garenetan, geldikinak zabalduko zirela, edo parte bat, harrespil-barnean edo zista-ganbaran, anderakuntza-zorutik gertu. Ez erdialdean, ez monumentuetako gainontzeko uneetan ez dago ikatz-kontzentrazioirik. Ikatzak monumentuetan zabaldu ondoren barrutietan aurrez ateratako lurrez eta ondoren berriz harlosaz estaliak izango ziren edo zistaren kasuan bezala tumulu baten bidez.

Egur-mota honen erabilpena, J. BLOT-ek (1979) adiera eraman zuen bezala helburu errituala baino gehiago inguruan zeuden basoetako zuhaitzen mota batzuen adierazle izango litzateke.

Bestalde, jasotako material guztia suharrizkoa da, industutako eremu gehienetara banatzen dena, eta bere ikerketa tipologikoetik ia datu kronologiko edo beste motakorik lortzerik ez dago. Beste aztarna batzuen txirotasuna hildakoen errausketa eta jende hauen bizimoduari atxiki ahal zaio.

Multzoaren eraikuntzarako gehien erabilitako lehengaia hareharri gorria dugu, multzoa kokatzen den toki berean aurkitzen dena. Hau, ia Gipuzkoako monumentu megalitiko gehienetan ematen den berezitasun bat da, salbuespen batzuk ezik.

Azkenik esan dezagun harrespil berrien indusketak gaur egun ditugun informazioak osa ditzakeela. Baina K.a. I milurteko Euskal Herriko isurialde atlantikoko jende hauen bizilekuen (hiriska, etxola, etab.) kokalekuak eta indusketak uste dugu izango direla ikerketa berrien bide irekitzaileak.

## BIBLIOGRAFIA

ALTUNA, J.; ARESO, P.

1977. Excavaciones en los cromlechs de Oyanleku (Oyarzun, Guipúzcoa). *Munibe* 29, 65-76. Donostia.

ALTUNA, J.; MARIEZKURRENA, K.; ARMENDARIZ, A.; DEL BARRIO, L.; UGALDE, TX.; PEÑALVER, X.

1982. Carta Arqueológica de Guipúzcoa. *Munibe* 34, 1-242 + carpeta con cartografía. Donostia.

BARRIO, L. DEL.

1979. Nuevos monumentos megalíticos de Guipúzcoa. *Munibe* 31, 257-273. Donostia.

BLOT, J.

1977. Les cromlechs d'Errozate (Compte rendu de fouilles). *Bulletin du Musée Basque*, 78, 157-176. Baiona.

BLOT, J.

1979. Les rites d'incineration en Pays Basque durant la Protohistoire. *Munibe* 31, 219-236 Donostia.

BLOT, J.

1981. Le tumulus d'Ahiga. Une tradition protohistorique en plein M. Age. *Bulletin du Musée Basque*, 94, 179-184. Baiona.

BLOT, J.

1984. Les cromlechs de Sohendi (compte-rendu des fouilles). *Munibe* 36, 83-90. Donostia.

HERNANDEZ, J. M.

1957. Notas sobre dos posibles restos prehistóricos. *Munibe* 8, 152-155 Donostia.

JEREZ, L.

1971. Estudio geológico de la provincia de Guipúzcoa. *Memoria del Instituto geológico y minero de España* Edit. Instituto geológico y minero de España. Madrid.

MARIEZKURRENA, K.

1979. Dataciones de radiocarbono existentes hasta el presente para la prehistoria vasca. *Munibe* 31, 237-255. Donostia.

MERINO, J.M.

1980. Tipología lítica. *Munibe*. Suplemento 4, 5-550 Donostia.

PEÑALVER, X.

1983. Estudio de los menhires de Euskal Herria. *Munibe* 35, 355-450. Donostia.